

## **2010eko urtarrilaren 23ko adierazpen komuna**

Honako adierazpen hau Europar Batasuneko hainbat Estatutan (Frantzia, Espainia, Italia) Abiadura Handiko Trenen linea berrien eta ahalmen handi eta azkarreko merkantzia-lineen eraikuntzaren aurka diharduten hainbat elkarte eta mugimenduk elkarlanean landu dugu, gaur bertan gure indarrak batuz gure ahotsa entzunarazteko, aurrean ditugun arazoak berdinak baitira leku horietan guztietan.

Gure aurkakotasuna, beraz, tokiko markotik Europakora pasa dela esan genezake.

### **Hemen elkartu garenok, hainbat estatutan (Italia, Frantzia, Espainia) AHTren linea berrien eta ahalmen handi eta azkarreko merkantzia-lineen eraikuntzaren aurka gauden herritar, elkarte eta giza mugimenduok**

#### **honakoa adierazten dugu:**

- proiektu horiek zeharkatzen dituzten lurraldeetan, ingurumen, sozio-ekonomia eta gizartearen ikuspuntutik hondamendia besterik ez dakarte: natura inguruneen eta nekazal lurren suntsidura, ingurunearen kalte eta narriadura dakartzaten lerroak, herritarrengan eragin kaltegarriak sortuko dituztenak,

- egitasmo horiek ez dute erabakiak hartzerakoan herritarren parte-hartzea kontuan hartzeko gaitasuna. Gobernuak eta administrazioek proiektu horiek herritarrengan sorrarazten duten aurkakotasun sakonaren aurrean darabilten iluntasuna salatzen dugu eta baita herritarren argumentu eta proposamenekiko agertzen duten erdeinua,

- linea berri horien eraikuntzaren zurbide ofiziala, trafikoa eta errentagarritasun sozio-ekonomikoari dagokionez, sistematikoki hipotesi faltsuen eta eraikuntza-lanen kostuaren gutxiestearen gainean eraiki dute, benetako erabilgarritasuna frogatua ez duen proiektua hobeto "saltzeko" asmoz; azterketa ugari, ordea (Essig txostena Britainian, Bermejoren txostena Hego Euskal Herrian, Citec Ipar Euskal Herrian, Brossard 1998 eta Ponts et Chaussées 2003 Rhône-Alpeak, Lyon-Turin linearen inguruko Behatoki Teknikoaren Pleguak, italiar erakundea), bai eta Frantzia eta Italiako Kontu Auzitegien txostenek ere, argi utzi dute ekonomia eta gizartearen ikuspuntutik proiektu horiek ez dutela inongo funtsik,

- AHTri esleitu dioten lehentasuna gastu izugarriaren gainean egin dute, gertuko mugikortasunaren eta jada badiren trenbideen mantentze-lan eta garapenaren kaltetan, lurraldea bere osotasunean barne hartuko lukeen merkantziatarako sarea eta herritar guztion eskura izango den garraio zerbitzu publikoa izan litekeena babestu eta optimizatu gabe,

- AHTen eraikuntza azpiegitura handiak sortzearen etengabeko bide eroan kokatzen da (autopistak, aireportuak handitzea, super-portuak...) eta garapen iraunkorraren aurka doa. Kapitalismo globalizatuak eragin duen garraio-hedapen beldurgarria salatzen dugu, tokiko garapen orekatua galarazteaz gain, funtsik gabeko trafiko eta ekoizpenen kontzentrazioa eta deslokalizazio basatia sustatzen baititu.

#### **Honakoa exijitzen dugu:**

- Europako Batzordeari eta Europako Parlamentuari, Europar Batasunaren mailan distantzia ertain eta luzeko garraio-politiken ardura duten heinean, azpiegitura handien zentzugabekeria eta behar ezaren inguruko gogoeta irekitzea (AHT, autopistak, aireportuen handitzea, super-portuak...) eta Europako garraioen inguruan (TEN-T Trans Europe Networks – Europa osoko Garraio Sareak) EBk duen estrategiaren berrazterketa sakona bultzatzea,

- Frantzia, Italia eta Espainiako Gobernuak, AHTren lan eta proiektuak berehala bertan behera uztea, Europa mailan benetako eztabaida publiko uniformea abiarazteko AHTren hedatze neurrigabearen oinarrian dagoen garraio-, lurralde- eta gizarte-ereduaren inguruan.

#### **Irtenbideak honako hauetan bilatu behar direla baieztatzen dugu:**

- dauden lineak berritu, mantendu eta optimizatzea, ingurumenaren ikuspuntutik onargarriena litzatekeen bidea izateaz gain, bide berriak eraikitzeak baino askoz ere gastu gutxiago eta Frantzian 2009ko abuztuaren 3ko Ingurumenari buruzko Grenelle legearen 1. artikulua betetzea baitakar ("Delors-en Liburu Zuria" delakoak ere goratua),
- garraioa gutxitzea, ekonomia- eta gizarte-ereduaren eraldaketa sakonari lotuta, gertukotasuna eta ekonomiaren birkokapena lehentasun gisa hartuz,
- azken buruan, azpiegitura hauek zuzenean eragiten dieten herritarrei erabaki ahalmena itzultzea, garapen-eredu inposatuaren aurrean benetako demokrazia eta tokiko autonomiaren bermea dena.

Izenpetzen dute: